



ZERUKO ARGIA

ILLEROKO ALDIZKINGI EDERGARI IDUNA
AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

IV Urtea	1922'ko	Otsaila	38 Zenbakia
----------	---------	---------	-------------


XV'GAÑEN BENDIKTO AITA SANTU ZANAK 1922'eko ILBELTZAREN 23'an KONTUA EMAN DIO JAUNARI BATI- KANO'KO ITXIPEAN.

Aita Santuaren Alkira igo zan beña heraterik izugarie-
nak gañetan zeukan ayunetan eta bera izan da Aingeru pa-
katzalea. Berak argitarazi zuan pakezko eguna. Jaunaren
maitetasunezko ondasunak ber guzia bañena ixuriz bizi
izan da. Menderatuen negaræk iñork ez bezala txukatu zi-
tuana; beartsuak ez dute bera bezalako laguntzalerik izan.
Eliz-legeak berak bateratu ta argitaratu ditu. Meza liburu-
beña eta elizkizun lege beñiak berak zuzendu ditu. Lur
bazar guztietaraño Ebanjelioaren argia eramateko lan
gogofa egin du. Ebanjelioa nola erakutsi adirazi du, beñi-
ketari atariaz itxiz. Eliza'tik baztartutako Eridiak edo na-
zioak bere esanetara jarria erazi ditu. Baztar guztietan so-
matzen da Elizarekin ondo etofri naia ta onela lan egin du
Jesus'en goi maitetesunaz biotz guziak lotzeko, ta ardi
galdu guztiak Zernko Artzai Onagana biltzeagatik.

Betiko zorionean bego.



PEKATUEN BARKAZIOA



Credo remissionem peccatorum.

Symb. Ap.

Siñisten dut pekatuen barkazioa.



EKATUA edo obena Jaungoikoari egiñen zaion irain edo bidegabekeria dalako, Jaungoikoa naigabeturik uzten du. ¿Nola ta nork gozatu Jaungoiko naigabetuaren biotza? Iñork bai aldu ontarako eskubiderik edo almenik luñaren gañean, gizonen artean?

Galde oiei erantzuten die gure siñismenaren itz auek:
siñisten dut pekatuen barkazioa.

X-gañen Pio'k bere dotriña labuñean onela dio. G.—*Zer esan nai du pekatuen barkatzeak?* E.—*Pekatuak barkatzeak esan nai du Jesukristo'k Elizari eman diola pekatu guztiak barkatzeko almena, ontarako utzi dizkion Sakramentuen bidez.*


Jesukristo, Jaungoikozko Semea, gizon egin zaneraño ez zan luñaren gañean iñor, gizonen gaiztakeri ta okefak barkatu zezazkenik.

Bitartean ez zion Jaungoikoak iñori ortarako eskubiderik edo almenik eman. Jaungoikoak asko aldetara aditzera eman izan zuan barkatzen zizkielela beren gaiztakeri, oben edo pekatuak gizonei. Natan'ek Jaunaren izenean esan zion Dabid'eri «aldatu (barkatu) dizu Jaunak zure gaiztakeria» (2 Egeg. 12'an) Jaunak bere esku gogoña efi ziorkatuaren gañetik kenduz aditzera ematen zien barkatzen ziela. Bein edo bein bere adiskide maiteen bidez erakutsi ere bai: nola iritxi zezaken bere barkamena: (Genesis 19. Num. 21) baño beñere ez zion Jaunak iñori eman izan pekatuak barkatzeko esku-biderik.

Jesus pekatuak barkatzen.

Ofengatik Jesukristo'k afiturik utzi zituan juduak pekatuak barkatzen asi zanean.

Zoaz pakean—esan zion, ezkontza zikindu zuan andreari—nik ez zaitut gaitzetsiko. (Joan. 7.)—Zure pekatuak barkaturik geratzen zaizkitzu—esan zion Magdalena'ri (Luc. 7.)—Gaur nerekin izango zera zorientegian esan zion lapur damutuari. (Luc. 23.)—Barkatzen dizkitzut zure pekatuak—esan zion elbafiari ta itz oiek gaizki artu zituen Fariseoak ta zioten: zer dio enek? biraua esandu. Nork barka dezazke pekatuak (obenak) Jaungoikoak bakafik ezpada? Eta ezaguturik Jesus'ek bereala beren baiten gogoan zera-biltzena, esan zien: zergatik gogoratzen dituzute auek zuen biotzetan? Zer



Jesus Irakasle'en artean



da efazago, elbafiari esatea: barkatzen dizkitzut zure pekatuak; edo esatea: zutifu, artu zure oea ta zoaz?

Jakin dezazuen, ba, gizonaren Semeak ba-duala eskubidea lufean pekatuak barkatzeko (esan zion elbafiari:) esaten dizut, zutifu, artu oea ta zoaz zure etxera. Eta bereala zutitu zan ura, soñean artu zuan bere oea ta joan zan guzien afean, guziak afiturik utzi ta. (Marc. 2.)

Onela adirazi zuan Jesus'ek oben edo pekatuak barkatzeko zuan eskubide edo almena.

Jaungoikoak bakafik barkatu dezazkela pekatuak Fariseoak aitortzean Jesus'ek aitortu azten zien, egin zuan miraria egin ezkeroz, bera Jaungoiko zala.

Pekatuak barkatzeko eskubidea Elizan.

Jesus bizi zan artean Elizari agindu zion askubide ori, Pedro Deunari esanez: zuri emango dizkitzut zeruko ereinoko giltzak. Eta luf gañean zuk lotuko dezun guzia, zeruan ere lotua izango da: ta luf gañean askatuko dezun guzia, baita zeruan ere askatua izongo da. (Math. 16)

Beste bein Apostolu guziei itzegiñez esan zien: egiz. esaten dizuet, luf gañean lotuko dituzuen guziak, zeruan ere lotuak izango dira: eta luf gañean askatuko dituzuen guziak, askatuak izango dira zeruan ere.

Itz oien bidez eman zien Jesus'ek siñestun'en gogo edo animak eliz-legeaz lotzeko; ta zeruan sartzeko animak izan dezaiketen eragozpide guziak askatzeko eskubidea. Eta nola pekatuak bai-dira añako afean-añeneko eragozpideak. Alegia, oiek barkatzeko edo oien katetatik askatzeko eskubidea itz oietan eman ziela.

Bizitzan agindu zien eskubide aundi ori, iñen artetik piztu ondoan eman zien. Apostolu guzien erdian jafirik esan zien: Pakea zuekin... Nere Aitak ni bialdu ninduan bezelaxe, bialtzen zaituet nik ere. Auek esan ondoan, aizea eman eta esan zien: *Ar zazue Spiritu Santua: pekatuak barkatuko dizkiotzuen aiei, barkatzen zaizkiote, eta zuek barkatuko ez dikiotzuenai, gelditu egiten zaizkiote.* (Joan. 20).

Emen garbi agiri da, ba, Aitak berari emandako eskubidea, berak orain bere Apostolui ta aien ondorekoai damaiela. Itz oien bidez Eleizak izan zuan, ba, Jesus'ek zuan eskubide guztia.

Zer pekatu edo zenbat barkatu ote dezazke Elizak?

E. «*Elizak pekatu mota guziak barkatu al dezañke?*»—galdetzen du Pio X-gañenak bere dotriña luzean.

«E. Bai. Elizak barkatu dezazke pekatu edo oben guziak, naiz asko ta aundiak izan, Jesukristo'k askatzeko ta lotzeko eskubide osoa eman diolako.»

Jesukristo'k eskubide ori ematean ez dio, ba, Elizari mugarik jafi barkatu beaf ditun pekatuentzat. Geroztik edozein garaiez, edozeiñi, edozeiñ gaiztakeri mota ta neufigabekoak ba-dira ere, barkatu dezazkioke Elizak:—Zenbat aldiz barkatuko diot galdetu zion, bein Pedro Santuak Jesus'i,—zazpi alditaraño?;—eta Jesus'ek erantzun zion:—ez dizut esaten zazpi alditaraño, baizik irurogei ta amazapi aldiz zazpitararaño. Au da esan balio bezala «beafa duan arteraño.»

¿Nork du Elizan eskubide ori?

G. Nork dute Elizan pekatuak barkatzeko eskubide au? (X-gaŕen Pio dotriña luzean.)

E. Elizean eskubide au derabilttenak dira: lena Aita Santua, onek bakafik du eskubide oso-oso; gero Gotzai edo Obispoak eta Gotzaien mendean Apaizak.»


Aita Santuagan dago, ba, eskubide oso-oso; onek, beste bere mendeko guziei eman dezaiekete, zerpait laburturik eskubide ori ta alaxe ematen ere du. Baita Gotzai edo Obispo jaunak ere zenbait pekatu barkatzeko eskubidea beregan bakafik gorde dezake edo obeto deritzaion Apaiz batzuei bakafik eman ere bai.

¿Nola barzatzzen ditu Elizak pekatuak?

Jesukristo'ren merezimenduaz barkatzen ditu Eleizak, pekatuak, aŕek ortarako jaŕitako Saktamentuak emanez, batez ere Bataioa ta Aitorpen edo konfesioa. (X-gaŕen Pio'k).

Len Jaungoikoak bakafik barkatzen zituen gaiztakeriak, orain Eleizak bere gizon autatuen bidez barkatzen dizkigu. Jesus'ek eman zion eskubideari eskeŕak. Egia da premiako orduan Bataioa edozeiñek eman dezaken Sakramentua dala, baño ori ere berez Apaizen eginkizuna da ta bere Emañe berezkoa Apaiza da.

Intzar Damaso An. O. M. Cap.



1922'garēn urtean Bulda ar̄tu dutenentzat izango diran barau-egun eta aragia uzteko egunak

<i>Epailla</i>	1	Austeŕe-eguna.	Baraua bakafik
»	3	Ostirala	Baraua ta aragi-uztea
»	4	Larunbata	Baraua bakafik
		Garizumako lenengo astea	
»	8	Asteazkena . . .	Baraua bakafik
»	10	Ostirala	Baraua ta aragi-uztea
»	11	Larunbata	Baraua bakafik
		Garizumako bigarēn astea	
»	15	Asteazkena . . .	Baraua bakafik
»	17	Ostirala	Baraua ta aragi-uztea
»	18	Larunbata	Baraua bakafik
		Garizumako irugarēn astea	
»	22	Asteazkena . . .	Baraua bakafik
»	24	Ostirala	Baraua ta aragi-uztea
»	25	Larunbata	Baraua bakafik
		Garizumako Laugarēn astea	
»	29	Asteazkena . . .	Baraua bakafik
»	31	Ostirala	Baraua ta aragi-uztea
<i>Jorrailla</i>	1	Larunbata	Baraua bakafik
		Pasioko astea	
»	5	Asteazkena . . .	Baraua bakafik
»	7	Ostirala	Baraua ta aragi-uztea
»	8	Larunbata	Baraua bakafik
		Aste Deuna	
»	12	Asteazkena . . .	Baraua bakafik
»	14	Ostirala	Baraua ta aragi-uztea
»	15	Larunbata	Egueŕdiaŕteraŕio baraua bakafik
<i>Garagarrilla</i>	3	Pentekoste-aufe-guna	Baraua ta aragi-uztea
»	9	Ostirala (Barukaldi <i>Temporak</i>) . . .	Aragi-uztea bakafik
<i>Dagonilla</i>	14	Andre-Mari aufe-guna	Baraua ta aragi-uztea
<i>Agorra</i>	22	Ostirala (Barukaldi <i>Temporak</i>) . . .	Aragi-uztea bakafik
<i>Neguilla</i>	22	Ostirala (Barukaldi <i>Temporak</i>) . . .	Aragi-uztea bakafik
	23	Gabon egunaren or̄dezeko	Baraua ta aragi-uztea

O A R P E N A K

Barau-egunetan, naiz aragi-uztekoa izan, janaria ondu ta geŕtutzeko, edozein gantza edo koipe, baita *mar-garina* deritzaiona ere, erabili liteke. Baita esne-gazta ta aŕautzak ere jan litezke.

Barau eguna bakafik danean, aragia ta aŕaia nastu litezke janaldi batean.

Aragi-uzteko egunetan ez aragirik, ez aragi-saldarik ezin ar̄tu liteke.

Afazoi zuzen eta bidez-koren bat daukanak bere autot-entzule edo *konfesoreagandik* iritxi lezake baraurik ez egiteko ta aragia jateko eskubidea. **Arantzazu'k**

Nun dira pake ta zoriona?



GUBERI gauan ainbeste poztu gaituzten aingeruak ixil-dira; izar batek deitu ta ufutitik etofi diran iru efegeak beren sortefira itzuli dira estalpetxoan ikusi dutena beren efitarai esateko gogo biziakin; legortu dira noizbait aur efugabeen amak ixuri dituzten malko gafatzak.

Ta Jesus? Pakean bizi da Jose ta Maria'rekin Nazareth deritzaion efian.

Zenbat eta aundiagoa dan iruren artian gertatzen dana jakiteko gogo, ainbat eta ixilagoa da orko bizitza. Ebanjelioai galdetzen ba, diogu, ez gaituzte bere itzak betetzen. Ara zer digun: Bere gurasoen menpean zegoen ta urteekin batean gero ta aundiagoa zan bere jakintza ta bere grazia Jaunaren ta gizonen afean.

Afokeria izan da gure zoritxar guzien itufia, afokeriak bota zituen baratz edefetik, ta inpernu bera ere, aingeru baten afokeriaz egiñ da.

Jesus'ek bada, apaltasuna itzak in erakutsi baño len, bere bizimoduaz erakutsi izan nai zigunta of dezute, naiz txikiya, naiz gaztea, naiz gizona, naiz Jaungoikoa izan, of dezute Jose ta Maria'ren menpean. Nor da, galdetzen du Bernardo Deunak, besteen menpean dagon ori? Jaungoikoa, Zeruko aingeru guziak bere menpean dauzkan Jaungoiko bera.

Apaltasun au bera, erakusten digu Maria'k Belen'go ta Ejipto'ko bidean ta gero Nazareth'ko etxean. Jesus'en antzera Jose'ren menpean bizi da; onen naia bere naia da, onen gogo ta asmoak bereak dira.

Ta nola azaldu Jose doatsuaren leia ta alegiñak Jaunak bere menpean utzi zion Seme maite-maitea zaintzeko? Nola azaldu etxe ortako pake ta zoriona?

Zorion ta pake oyek iges egin dute gaurko sendi edo famili askotatik. Etxe askotan eztira gurasoak agintzen dutenak, baizikan semeak. Edozein zapuzkeri, edozein asefaldi, edozein kasketaldi naikoa da guraso askoen-tzat, semeai nai dutena emateko.

Geienetan gurasoak bere bizimoduaz bide onetik eraman beafean, galbidera botatzen dituzte beren semeak. Ez dakite noski Jaunak emanak dirala seme oiek ta Jaun ofek egunen batean eskatuko dizkiela.

Nazareth'ko etxea lan-etxea da. Maria etxeko zer-egiñetan, Jose zurgintzan ta Jesus oni laguntzen ikusiko ditugu.

Lana guzian egin-bea da. Mundua egin ondorean, gure lenengo gurasoak baratz edef ortan jafi zitzenian, etzituen lanik egin gabe bizitzeko jafi ez, baizikan ura zaindu ta lantzeko.

Ez dezakegu lanetik iges egin; Jaunak berak agindu digu gure peka-tuak ordaintzeko, oietatik iges egin ta zerua irabazteko.

Edozein lanarekin, naiz txikia, naiz edefa izan, zerua irabazi dezake-gu, gure lanak, Jaunaren agindu ori betetzeaferen, egiten ba-ditugu.

Asko afitzen gera Jesus ainbeste urte bere gurasoen menpean ikustean gure lanak bear dan bezela egiteko asko laguntzen digu Jesus gure aurretik lanean ikusteak, baño gauzik edefena izango zan noski irurak otoitzan edo orazioan ikustea.

Santu batzuek, Jaunak esan dielako, ortaz zerbait jakin dute ta berak diote, lanak utzita, irurak batian otoitza egiteko orduak bazituztela.

Ez diteke gauza edefagorik ikusi. ¡Jesus, Maria ta Jose, iruak batian otoitza egiten! ¡Otoitz beroagorik, xamufagoarik e da inoiz l fetik zerurago!

Ara Nazareth'ko Sendi deunak erakusten digun irugañen gauza: sendi edo familietan otoitza. Ba-dira oraindik sendi asko otoitzak guztiak batean egiten dituztenak, baño oitura eder au ere galtzen dijua.

Ona da bakoitzak bakarik egiten duan otoitza, ba bestiekin batean egiten danak indaf geiago izaten du, alako otoitzak biotzak batutzen ditu ta gañera Jaunari atsegingafigaigoa zaio. Ala bio berak: bi edo iru nere izenean buizen ba-dira, oien erdian nago ni.

Etxeko buruari menptasuna, lanari zaletasuna ta elkarrekin otoitza erakusten dizkigu Nazaret'ko etxeoak; irurak edefak ta bate ere beahezkoak gaurko sendietan pakea ta zoriona ikusi nai ba dugu.

XV'g. Benedikto Aita Santua zorion ta pake oyek sendietara ekari naiaz, azkeneko Urñan Sendi deunaren, Nazareth'ko Familiaren jaya Eliz guztira zabaidu du, gaurko sendiak Nazareth'koaren antzera bizitzen ikasi dezaten.

AZURZI O. M. CAP.


OREAGA (Roncesvalles)



MILA ta zazpigañen urterako ba-zan Ibañeta'ko gañean San Salvatore'n eliza *Karlo Magno'ren eliza* deitua ostatu izen aundiko ta eritegi edo *eritegi*akin. Beñeun urte lendik erege otsdun orek goratu ber-zan, an geroztik izan zan gudari edo soldadu ta praile batean ziran gizonen bizilekua. Agustin Deunaren biziera zuten aiek.—Aiekgandik dute gaurko Kanonigoak beren jantziera ta gañerako biziera.

Aurean daukazuen etxe ortan orain 10 Kanonigo beren Burudan beste Kanonigo batekin bizi dira. Ba-dira gañera sei Ontartedunak edo Beneficiaduak.—Napañoko Santxo Azkarak beritua da eliza. Baño lenagoko aztarna ta ezagupidea uzten digute orma aietako alderdi askok.—Oreaga'ko Andre Maria Napañean aipatuenetakoa da ta bere eliza ikusgañia bizi: Ama Birjiñaren irudia, oso liraiña ta atsegingañia, Ama jañirik Jaungoikozko Aurtxo ezkeroko besoz maiteki bulañgañean estutzen duala. Auxa da guzien begi biotzak beregan josi-erazitzen dituana. Baño artaz landara ba-dira eliz onetan beste asko irudi eder ta beste asko gauza ondo ikusgañiak; batek ere Karlo Magno'ren soldadu taldea euskaldunak, an gertuko arkaitz artean purukatu zuteneko oroigañiak. Ama-Birjiña oni jaiera aundia zaio Napañ guzian, baño batez ere aldame-neko ibañ edo baletan.—Urtero egiten dizkiote bere ikustaldiak uda-

beñiak, Artze'ibarko eñi guziak bere Agintari'ta Apaizakin, eñiko Gurutzea buru dala, Eñoibarkoak beste egun batean, Aurizpeñikoak bereiz beste egun batean; Auritz'koak (Burguete) eta Aezkoa'koak



Oñeaga (Roncesvalles) (Nafarroa)

ere ba dituzte beren egun jakiñak. Luzaide'ar'ak beste guzien aurretik dute beren egun jakiña Oñeaga'rako.

Egun oietan eñi guztietako etxe edo bizitza bakoitzetatik bat berenik joaten da jira ortara. Gizakiak gurutze bana soñean dute-la; Oñetarañoko soñeko luze beltzantzekoaz jantzirik, aurpegia ere estalirik eta oñ-utsean joaten dira.

Ikusteko bikaña ta biotz berogaña da uraxe.

Urte guzian ba-dira bi tañanta edo auto Auritz (Burgeñera) Iruña'tik.

ESKALE BAT, ARTZAI

Apaiz egin nintzan egunean.

Eskale bat nintzan ni aspaldi batean;
aterik-ate ibilli oi nintzan eskean
eguzkiaren suaz kiskalduta udaran,
negu gofian otzez dardaraz gaubaran.

Ilbeltzako gau baten, elufa ari zala
basoan galdu nintzan bildots bat bezala
Ezurfetaño sartzen zitzaidan izotza
aragian oi-dan lez ezpata zorotza.
Ilun-ilun guzia, zuri-zuri luña
ta ufuti basatxean zaungaka txakufa.
Ikara biotzean, aragian otza,
gora ta bera egan bertan eriotza...
Txori beltz arengandik ni igesi aufera
baña ¡ai! nere gain beti egan gora-bera.
¿Nolaz andik uxatu gau-txori beltz ura?
Biotzak esan zidan: begira Zerura.
Nere begiak aruntz zuzendu nituan
ta auzpez eluf-gañean otoitz-egin nuan,
ta antxe il-zorian otzez otoizka negola
ikusi nun artzayen afizko txabola.
Txoria kabian lez, safturik baruan
loak bere altzoan bela artu niñuan.
Ta ametsetan igaro nuan gau osoa:
gau artako ametsa ¡bai amets gozoa!

Lafe eder bat nekusan mendi-egalpe-
eta artalde ugaria or-emen lafean. [an
Nun-nai artzai-txabolak goyan eta be-
arkume jayoberi zuritxoan esan. [ran
Udaran goiz-aldean guziok lafera,
bazkal-ondoan beriz basoko itzalpera
f'etanda lo-kuluska egin-ondorean
dilin-dala aterperontz ilunabafean.
Beti txabola-aufean artzañorak ernai:
otsoarekin nunbait bufukan egin nai.
Amatxok maite duan lez bere semea
artzayok maite dute bere artaldea.
Lafetan galtzen ba-da bildots ala ardia,
aren bila an da laister artzai-nagusia:
ta an dabil mendiz-mendi arkitu-artean

ta arkiturik musuka dakañ bizkafean.
Orduan jai-dagite mendian artzayak
f'entzun oi-dira an txistu ta abesti ala-
Besotan dabilkite laztanka gaxoa [yak.
jaten damayotela esne ta taloa.
Ayen maitasun onek txoratu niñun
ta oyekin bizitzea an erabaki nuan,
ta artzai-nagusia negañ neriola
eskatu nion antxe neretzat txabola;
ba-neukela ortako biotzean gaña
f'otsoa birintzeko besotan indaña.
Nagusia au entzunda poz-poztu zan zi-
ñez,
f'erantzun zidan artzai danai ots-egineñ:
Ba'degu gauñtik beste artzai bat, mu-
ñlak:
jaguñ-dagiogun, ba, jasoaz makiñak!
Gero kendu zizkidan eskale jazkiak
ta jantzi nitun artzai-soñeko garbiak.
Belaxe beste artzai-mutiñen ondoan
asi nintzan poz-pozik nere artzaingoan.


Emen ¡ai! bukatu zan ner'amets gozoa
f'eluf-tartean esna nintzan gixajoa.
Orduantxe eguzkia piztu zan mendian
ta itzaltzen asi ziran izafak ortzian.
Geroztik urte asko, Jauna, igaro dira.
ta itzali etzait zure begien dirdira.
Gauñ ziñez egin nazu Zur'artzai-mutiña
f'eman didazu zure artzayen makiña,
jantzi didazu artzai-soñeko txukuna
ta biotzean piztu artzai-maitasuna.
Baña ¡ai! etoriko da belaxe negua
ta il lezake elufak gauñ piztu dezun sua.
Jauna, zure asnasez jafi su-gañetan
su ori beti nere biotz ta zañetan,
eluf-tartean galdu dan arkumetxoa
bizkortu dedin nere kolkoan gaxoa.
Zuk lez maite dezadan nere artaldea
artzai on bai egizu lengo eskalea.

JAUREGI'ta' K.






antum ergo



(Donostiar J. A. Ak. ereskidetua)

Tan tum er go Sa - cra - men - tum




Ve - ne re mur cer - nu - i

Et - an - ti - quum



do - cu - men - tum No - vo - ce - dat ri - tu - i

Pres tet



fi - des sup - ple - men - tum sen - su - um de - fec - tu - i A - men.





ADESTE, FIDELES



Eldu, kristau siñestunak,
Bizkoñ, alai, poz-oyuka;
Atozte Betlehem'era,
Ikusazute jayoa
Aingeruen Etegea.

*Eldu, agur egin dezayogun,
Eldu, Jauna jauretsi (adoratu)*

— [dezagun.

Beren ardiak utzi-ta
Seaska apal oretara
Artzayak doaz leyaka
Aingeru batek deitu ta;
Gu orobat zein leenik
Goazen oyekin batera.

*Eldu, agur egin dezayogun,
Eldu, Jauna jauretsi dezagun.*

Jainko Aitaren distira
Gizon-aragiz jantzia
Or dadukagu jafia:
Jainkoa degu aurtua,
Aufzapietan bildua.

*Eldu, agur egin dezayogun,
Eldu, Jauna jauretsi dezagun.*

—

Gugatik gabetu dana,
Lasto gañean datzana
Gure musu ta laztanez
Bero dezagun gozoki:
Ain maite gaituen ori
Nork ez maitatu ordañez?

*Eldu, agur egin dezayogun,
Eldu, Jauna jauretsi dezagun.*

URTSUYA



Nola Jaungoikoa
bear duan gizonak



IDERA botatzen ditugun añaik luñera ezin bestez darozten be elaxe. gure gogo edo animak Jaungoikoaganontz dijoa kigu ere. Orixe bai beara. bañon zorioneko beara! Jauna degu gure atsedena, Jauna gure atsegiña, Jauna gure gogo ko gose-egariñen atetzale bakaña.

Dabid'en bictz jaungoikozkoiak Hierosoliman zegon Jaunaganontz atzetitik intziuka jotzen zuen; «Oreñak iturria opa duan eran, opa zaitut nik, ene Jaun ori». Jauna gure animaren janari-ura data, beregana nai zuan Dabid Igafleak eta beragana nai degu luñian eresteka gabiltzanok, naiz sañitan beontako atsegiñ zifaletan bilatu nai badegu ere.

Gure izakuneari dario Jaungoikoaren beara. Alperikan Jauna tresna zaf bat bezela bazteftu naiez ariko da siñisgabea; amaika bideñ sortuko zaio

Jaun aundi on ofen beafa. Edefki ziotzan Agustin Deunak: Zuretzat egin gaituzu, Jauna, ta zure gañ etzan arte, kezkatu dago gure biotza (1).



Guk dakuskigun Jaunak egintako gauzak edefak dira noski, edefak egin bai zituen Jaun altsu ta jakintsu ofek (2). Eztira alare osoak. Bai zera! Zerbait gabe daude ta bafengo indar biziaz, osoak izateko beaf duten gauza



irixtera beti jotzen dute.

Osoak izateko beaf duten gauza ofi «elburua» deritzaio. Elburuak berekiñ osotasuna darama, ta osotasunak befiz atsegiña ta pakea.

Ez al dezute beñere ikusi eiztaria belauñak tolestaturik, beatzak benakan ezafita, begiaz etasu iskiñoz batean egaztia jo naiaz dagoalarik? Eiztariaren elburua eizea afapatzea baita. eizeak goizean goiz jekierazi, soroz-soro eraman, aruntz-onuntza eroturik bezela erabiltzen du. Eiztariaren elburua eizea afapatzea baita, zenbat eta ortarako trebegoa izan eta eizean geigo afapatu, eiztari ohea izango da. Ortan datza bere osotasuna, ortan bere ontasuna, ortan bere atsegiña. Abe-

Fot. Mendoza H. Oñeaga (Roncesvalles) (Naparra)

rats, jakintsu, eñe egin zazute; ofekin eiztari ona ezdezute egingo eta eizeari darion atsegiña ezdiotzute emango ere. Osotasun, atsegin, ontasun ta elburuak bat egiten dute ta elburua iritxita elburu ofi dagozkion atsegiñ, ontasun ta osotasuna irixten dira ere ta elburua iritxi gabe besteak irixterik ez dago.

Beste irazaki guziak bezela gizonak ere bere elburua badu. Jaungoikoa maitatzen ospatzen eta berak nai duana egiten, ortxe datza. Lufian Jauna ezagutu eta maitatzeko eta ofela emen osoa ta zoriontsua eta zeruan osoa goa ta zoriontsuagoa izateko! ortarako bakafik ezerezez egin zuan eta une guzietan bititza ematen dio Goiko Jaun ofetxek.

(1) Confes. lib. I. Cap. 5.

(2) Gen.

Gauza guziak bere aintzarako egin zituela diosku Idazteunak. Gauza guziak beregatik egin ditu Jaunak (1). Eta Batikano'ko Batzaf Nagusiak azaltzen du ez bere zorientasuna geitzeko ala befia irabazteko, bere osotasuna irazakiai ematen dizkien onen bidez agertzekotan baizik gauzak irazan egin zituela Jaunak; eta geroxago erabakitzen du: «Norbaitek mardu au Jaunaren aintzarako egiña izan dala ukatzen badu, doibazkatu bedi.»

Aintza ezagutza argain goraltzean datza; alaxe dio Tomas Deunak. Notin bat ezagutzen eta bere on ta osotasunak goresten dituzun añean, aintza ematen diozu ere.

Jaungoikoari bere osotasunak ezaguturik eta Bera maitaturik aintza emateko gauza da gizonezkoa, adimena ta naimena ditu-eta. Beste irazakiak ezagumen eta naimenik eztutela, bere ondasun ta osotasunak gizonezkoari erakutsi, beroiek ikusiaz beren Egilerano dedin au, besterik ezdezakete.

Gogora ekafi orain Jaungoiko gure Jauna ludia, izafak eta oietan dauden gauza guziak egiten. ¡Auxe bai edeftasuna! ¡Auxe bai berdiñezean batasuna! Aberatsa, oso aberatsa, izan al ditezkean aberaski guziak beregan dituan Jauna da gure Jaungoikoa; afortasunik gabe jakintsua, nausikerigabe altsua, akatsik gabe zuzena, aldatu gabe betikoa ta iñondiko utsunik gabe gauza on guziak beregan dituana.

Ofa ba Jaun aundi ori bere ondasunak bafeatzen, bere osotasunak al lezakean eraz ematen. Bere nai utsez an, emen ta nunai eunka, aneika izaf edefak piztu ditu; Ludi dalako izafbeltz batian mota guzietako afai, egazti, pizti ta abere sortuerazi ere bai; ta azkenean bere esku alorodunez gorputz zutin bat loiez eginda asnas biziduna eman dio.

Ofelako jauregia, ofen edefa, ofen aundia egiña ez al zuen zerbaite-rako egin nai izango Jaun jakintsu ofek? Ofumafuka aldiz eta aldiz ispilu bat bezin leun egoteko bakafik egingo al zuan itxaso zabal ori? Zertarako daude mendi tonotofak beti txutik, ibafak ezetasunez jantzi-ta, ibaiak zañen antzera ludi osoa narotzen ta ureztatzen? Zertarako aidea ufutzen dute egaztiak, zelaietan jauzika dabiltz txalak eta arkume jaio befia anka afgal eta ile kixkufezko arkumetxoa bere amaren efapeari ofen gogof erantsi ta egon oi da? Guk dakusgun gañetik, gauza oiek beren zera ta elburu gañ-gañekoa badute noski.

Eta Ludi ontan diran indafak nola zenbatu, azteftu ta sakondu? Irazaki guziak nork bereak badituzte, afigafiak gero, beren elburuetako berebizikoak. Oraindik gutxi dala Ipaf Amerikako andreek Prantzitaf Kurie andre ospetsuari «radium» deritzaion segai bateko aztaki edo puskatxo bat atsegiñez eman diote. Segai ortaz ludi osoan befeun aztaki bakafik daude ta aztaki batek 1.500.000 bat laufleko egiten ditu. Radium ofek bada beti, ilunpetan ere, argi izpi-indaftsua darizkio eta argi ortaz aragia efetzen du min bizia ta beste gaitzeri zalak sendatzeko dala. Kurie andreari emandako puskatxo ofek bi mila urtez argia emango du eta bat-batean indaf guzia emango balu 32.000 ur-izoztu txopin edo litro irakiñ-erazteko bero egingo luke.

(Daraikio)

OLEARTSO A. O. M. CAP.



EUSKALTZAINDIAREN LAGUNTZALE

(*Euskaltzaindiak eskatuta*)

Euskaltzaindia ari da gogotik euskeraren onezko lanean.

Nai luke euskera zabaldu ta gora-arazi, baño aurretik egin beaŕa dago lan gogortxo bat. Au da, euskaleriko alderdi guzietako itzen esanera bildu, alderdi geienetan zein ibiltzen dan ikusteko.

Lan auxe egiten asirik dago Euskaltzaindiak. Baño nai ditu laguntzaleak lan ortarako.

Euskaltzaindiaren laguntzale auen lana ez da zaŕa, baizik aski eŕaza.

Euskaltzain-Buruak egin duan *Erizkizundi* edo Cuestionario bateko itzetan zein dan bere eŕian edo eŕialdean ibiltzen dan adiraztea naikoa du. Ta ortarako asko luke bialduko litzaioke Erizkizundiko galdetan arkitzen diran itzak ikusi ta bere eŕialdean darabiltzenari azpitik aŕai edo maŕa bat egin tintaz. Or dauden itzak ez baño beste bat, edo beste era batera esaten ba-dute, ura antxe, utsik dagoan tokian jafi.

Zenbat on egin dezakezuket euskera maite dezuten guziok lan onixe ekiñez! Onela ikasiko du Euskaltzaindiak zer itz dezuten auek eta guzienak ikusi ondoan baita ere esan dezake zein dan alderdi geiagotan ibiltzen dana.

Onela ikasiko da geroko zein itz dan geien aditzen dana.

Eŕietako Apaizak eta zuen eŕitatik iñoiz atera gabe euskeraren ur garbia edana, artu aŕen lan edeŕ eŕaz-eŕaza au zuen gain.

Lan ontan laguntzeko gogoa dezuten guziok gatzigatu *Bilbao* Ribera 18, kaleran, R. M.^a Azkue jaunari, edo guri.

ARIGARIA

Zenbat balio dun anima batek

Ez da oraindik egun asko, Amerika'ko periodiko batek ziola: neskaxa gazte batek, ta aberatsa oso, bere gurasoen kontra, protestante'en erlijioa utzi ta Katoliko egin zala. Asaŕetu ziran biziŕo bere gurasoak ta bere aita bere gelara deitu ta esan zion: Nere atzenai edo testamentuan 50.000 dollars (250.000 ptas.) jafi nituen zuretzat. Zuk lengo erlijioan jaŕaitzen ba-dezu, beti protestante izaten ba-zera, ongi joango da guztia; baño bestela diru ori guztia kenduko dizut beŕiz.

Etzan ala ere izutu bere alaba, neskaxa zintzo ura: Aita egin zazu nai dezuna baño jakin zazu nere animak 250.000 ptas. baño geiago balio duela.

¡Kristauak! Zenbat dira bere animaz iñoiz ere oroitzen ez diranak!

JESUS'EN BIOTZARI ELIZ-NAGUSIA

Jesus'en Biotzaren Apezak, Eliz aundi bat jaso nai diote Eŕoman Jesus'en Biotzari.

Eliz ori, mundu guztiko Katolikoen artean jasotzea nai du Aita Santuak. Berak 200.000 lira eman ditu, egite aundi ortarako. Lenengo aña orain gutxi dala jafi zuten eta ortarako Pompili Cardenala biali zun Aita Santuak.

Mudu guztiko kristauak, lan egin bear dute oñen alde ta berak ugari eman-go dizkigu bere bedeizkanioak.

KARTUJO DERITZAION PRAÏLE OSPATSUA

Babiera'ko Cramer-Klett Jauna, Emperadorien aolkari edo konsejerua, gizon aberatsa, ta diplomatiko ospatsua, orain egun gutxi, Praïle Kartujo deritzaion konbentu batian sartu da.

IKASBIDE EDERAK

Oraintxe il da Frantzian, Felix Aldy Jauna Narbona'ko gobernadorea, eta len diputadu sozialista. Orain urte batzuk gizon oñek lan asko egin zuan Elizaren kontra, baño azkeneko orduan Sakramentu Santuak eskatu zituan.

Ecuador'ko lengo Presidenteä ere, Ignazio Venientemilla Jauna, Elizaren etsai aundia, Eliza katolikoen adiskide il da. Azkeneko orduan ea zer esaten zuan beren lagunei: *Eriotzako orduan gauzak beste moduz ikusten dira; n rignonuke nere eriotza bestientzat ejemploa edo ikasbidea izango balitz.*

FRANTZIA TA AITA SANTUA

Befiz alkañtu dira Frantzia ta Aita Santua. Izan dira Frantziko Parlamentuan Aita Santua Alemani'zalea zala esan dutenak; izandira ofengatik alkartasuna nai eztutenak baño ala ere ea Briand Jaunaren itzak:

Nere ustez, agintaria naizen ezkerotzik, beañezkoa uste det, Aita Santuakin alkartasuna egitea, beztela, añisku aundian jartzen degu Frantzia.

XXIV'gafen EUKARISTIKO BATZAÑA

Datoñen urtean 1922'ko Mayatzean, egingo da Eñoma'n XXVI'gafen batzaña Peregrinazio aundi bat egingo alderdi auetatik.

GOBERNU KATOLIKOA

Beljika'ko Gobernua afigafia da.

Urte asko dira, Kalikoak, auñera ateratzen dirala, ta oraingo elekzioetan. *Diputadoak* izan dira:

80 Katoliko—60 Sozialista—33 Liberalak.

Senadoreak befiz.

75 Katoliko—52 Sozialista.—28 Liberalak.



«ZERUKO ARGIA» ILEROKO ALDIZKINGIA

Urteko saria	4 pezeta
Itzaldiakin	5 pezeta
Erbestean	5 pezeta